


Esportazio eta inportazioek behera egin dute 2015eko lehen hiruhilekoan Euskal Herrian, EBko joerari kontrajarrita

- > 2015eko lehen hiruhilekoko datuen arabera, Euskal Herrian **esportazioak** 9 puntu gutxitu dira aurreko hiruhilekoarekiko eta 2,8 puntu iaizko tarte berarekiko.
- > **Inportazioek** ere behera egin dute: aurreko hiruhilekoarekin alderatuta 6,1 puntu, eta iaizko epealdi berarekin konparatuta 6,9 puntuko jaitsiera izan da.
- > **Europar Batasunean**, aldiz, esportazio zein inportazioek gora egin dute epealdi berean: 4,6 eta 2,2 puntu urte arteko hazkunde-tasan, hurrenez hurren.
- > Hego Euskal Herrian, **sektoreei erreparatuta**, urte arteko bilakaeran beherakada nabarmena izan da automobilgintzaren alorreko esportazioetan: 5,2 puntu murriztu dira Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian eta 1,4 puntu Nafarroa Garaian. Era berean, azpimarratzekoa da Nafarroa Garaian elikagaien, edarien eta tabakoaren sektorean inportazioek izan duten 8 puntuko beherakada (xehetasun gehiago, [hemen](#)).

> *Hiru hilean behin, Espainiako eta Frantziako estatuetatik kanpo Euskal Herriak izandako **merkataritza fluxuen berri emango du Gaindegia** hemendik aurrera.*

Espainia eta Frantziatik kanpoko merkataritza fluxuak: urte arteko hazkunde-tasa.
Euskal Herria, 2008ko lehen hiruhilekoa-2015eko lehen hiruhilekoa.



Oharrak:

- Hego Euskal Herriak Espainiako Estatutik kanpo eta Ipar Euskal Herriak Frantziako Estatutik kanpo dituzten kanpo merkataritza fluxuak dira honako hauek. Beraz, Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean izan daitezkeen merkataritza fluxuak ere barne hartuta daude eta ezin dira bereizi, nahiz eta Gaindegia ikuspegitik horiek Euskal Herrian gertatzen diren barne merkataritza fluxuak diren.
- Urtaoen eragina zuzendu gabe duten datuak.
- 2013tik aurrerako datuak behin-behinekoak dira.

Harremanetarako:

Gaindegia prentsa bulegoa (Amaia)
prentsa@gaindegia.eus
Tel. zka: (0034) 943 304 365

Gaindegia_informazio kanalak

www.gaindegia.eus
www.datuak.net
www.atlsa.net
www.euskalgeo.net

ESPAINIA ETA FRANTZIATIK KANPOKO MERKATARITZA FLUXUAK. EUSKAL HERRIA


EPEA	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK			SALDOA		
	Milioi €	Hazkunde-tasa		Milioi €	Hazkunde-tasa		Milioi €	Hazkunde-tasa	
		Aurreko epearekiko	Aurreko urteko epe berarekiko		Aurreko epearekiko	Aurreko urteko epe berarekiko		Aurreko epearekiko	Aurreko urteko epe berarekiko
2007	25.174	12,0	-	24.603	6,4	-	571	-187,9	-
2008	27.056	7,5	-	25.512	3,7	-	1.545	170,3	-
2009	20.759	-23,3	-	16.250	-36,3	-	4.509	191,9	-
2010	25.650	23,6	-	20.379	25,4	-	5.271	16,9	-
2011	29.175	13,7	-	23.210	13,9	-	5.966	13,2	-
2012	28.586	-2,0	-	20.660	-11,0	-	7.926	32,9	-
2013	28.443	-0,5	-	20.385	-1,3	-	8.057	1,7	-
2014	30.683	7,9	-	21.928	7,6	-	8.755	8,7	-
2010 I	5.724	8,1	8,7	4.639	7,9	14,9	1.085	8,9	-11,8
2010 II	6.867	20,0	28,7	5.371	15,8	37,6	1.495	37,8	4,5
2010 III	6.306	-8,2	29,7	4.945	-7,9	23,3	1.361	-9,0	60,1
2010 IV	6.754	7,1	27,5	5.425	9,7	26,2	1.329	-2,3	33,3
2011 I	7.472	10,6	30,5	6.108	12,6	31,7	1.365	2,7	25,7
2011 II	7.858	5,2	14,4	6.247	2,3	16,3	1.611	18,0	7,7
2011 III	6.850	-12,8	8,6	5.450	-12,8	10,2	1.400	-13,1	2,8
2011 IV	6.995	2,1	3,6	5.405	-0,8	-0,4	1.590	13,6	19,6
2012 I	7.230	3,4	-3,2	5.417	0,2	-11,3	1.813	14,0	32,8
2012 II	7.313	1,1	-6,9	5.115	-5,6	-18,1	2.199	21,3	36,5
2012 III	6.521	-10,8	-4,8	4.945	-3,3	-9,3	1.576	-28,3	12,6
2012 IV	7.522	15,3	7,5	5.183	4,8	-4,1	2.338	48,4	47,0
2013 I	7.013	-6,8	-3,0	5.125	-1,1	-5,4	1.888	-19,3	4,2
2013 II	7.730	10,2	5,7	5.107	-0,3	-0,1	2.622	38,9	19,3
2013 III	6.711	-13,2	2,9	4.976	-2,6	0,6	1.735	-33,8	10,1
2013 IV	6.989	4,1	-7,1	5.177	4,0	-0,1	1.812	4,4	-22,5
2014 I	7.438	6,4	6,1	5.428	4,8	5,9	2.010	10,9	6,5
2014 II	7.770	4,5	0,5	5.500	1,3	7,7	2.270	12,9	-13,5
2014 III	7.528	-3,1	12,2	5.614	2,1	12,8	1.914	-15,7	10,3
2014 IV	7.948	5,6	13,7	5.386	-4,1	4,0	2.562	33,8	41,4
2015 I	7.232	-9,0	-2,8	5.055	-6,1	-6,9	2.177	-15,0	8,3

Oharrak:


- Hego Euskal Herriak Espainiako Estatutik kanpo eta Ipar Euskal Herriak Frantziako Estatutik kanpo dituzten kanpo merkataritza fluxuak dira honako hauek. Beraz, Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean izan daitezkeen merkataritza fluxuak ere barne hartuta daude eta ezin dira bereizi, nahiz eta Gaindegiaren ikuspegitik horiek Euskal Herrian gertatzen diren barne merkataritza fluxuak diren.
- Urtaroen eragina zuzendu gabe duten datuak.
- 2014 eta 2015eko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta INSEE. Ekoizpen propioa.

**Esportazioak: urte arteko hazkunde-tasa.
Euskal Herria eta EB-28.**



**Inportazioak: urte arteko hazkunde-tasa.
Euskal Herria eta EB-28.**



Iturria: Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa, INSEE eta Eurostat. Ekoizpen propioa.

> Urteotako joerak, sektoreak eta helmuga herrialdeen bilakaera ikusteko:

- Txostena: [Esportazioak Euskal Herrian](#) (Gaindegia, 2015eko apirila).
- Bideoa: [Esportazioak Euskal Herrian](#) (Gaindegia, 2015eko maiatza).